# gaurko filmak

| | |
|---|---|
| **La ley de la fuerza** | ★★ |
| Zuz.: Felix E. Feist. 85m. 1952. | **18:20 ETB2** |
| **A la verticale de l'été** | ★★★ |
| Zuz.: Tran Anh Hung. 110m. 2000. | **20:40 Arte** |
| **Contact** | ★★ |
| Zuz.: Robert Zemeckis. 145m. AEB. 1996. | **20:55 F3** |
| **Hot Shots** | ★ |
| Zuz.: Jim Abrahams. 82m. AEB. 1991. | **22:00 A3** |
| **Linda, loca y peligrosa** | ★ |
| Zuz.: Alan Spencer. 90m. AEB. 1994. | **23:00 La2** |
| **Wonderland** | ★★★ |
| Zuz.: Michael Winterbottom. EB. 1999. | **23:10 C+(e)** |
| **Taxi** | ★★ |
| Zuz.: Carlos Saura. 106m. Esp. 1996. | **23:55 TVE1** |
| **El fantasma y Doña Juanita** | ★ |
| Zuz.: Rafael Gil. 70m. Esp. 1945. | **03:25 La2** |
| **Renegados II: los locos** | ★ |
| Zuz.: Jean-Marc Vallee. 94m. AEB. 1997. | **04:25 A3** |

| ● | ★ | ★★ | ★★★ | ★★★★ |
|---|---|---|---|---|
| Txarra | Eskasa | Balekoa | Ona | Bikaina |

Ane Muñoz



*Wonderland* filmeko irudi bat.

## Inkomunikazioa eta bakardadea, Londresko kale eta etxeetan

**WONDERLAND** ★★★ **C+(e) - 23:10**

Zuz.: Michael Winterbottom. Akt.: Shirley Henderson, Gina McKee. 104 min. EB. 1999.

Michael Winterbottom gaztearen drama berritzaile, fresko, berezi eta harrigarri hau Espainiako Canal Pluseko abonatuei gomendatu nahi dizuet, oso interesgarria baita, estetikaz eta edukiz. Londresen gau bakar batean garatzen da eta hainbat belaunalditako senitarteko batzuen gorabeherak biltzen ditu, pertsonaion arteko inkomunikazioa, bakardadea, elkartasun falta eta maitasunik eza errealismo handiz eta efektu berezirik gabe erretratatuz. Zoriontasunaren bila dabiltzan pertsonaia arruntak dira, eguneroko bizitzatik hartuak. Eszenaratze merke baina originala ederki egokitzen zaio Winterbottomek kontatu nahi duen istorio hunkigarri horri.

**LA LEY DE LA FUERZA**

★★ **ETB2 - 18:20**

Zuz.: Felix E. Feist. Akt.: Kirk Douglas, Eve Miller. 85 min. 1952.

Kirk Douglas izarrak protagonizatzen duen drama koloretsu zahartxo eta txiki hau zuhaitz erraldoi batzuen inguruan garatzen da. Kirk Douglasek, Jim Fallon handinahi eta burugogorraren rolean, kuakeroen erkidego bateko biztanleei aurre egingo die, haien tantaien jabe izan nahi baitu. Entretenigarria da.

**CONTACT**

★★ **F3 - 20:55**

Zuz.: Robert Zemeckis. Akt.: Jodie Foster, David Morse. 145 min. AEB. 1996.

Zientzia fikziozko abentura komertzial garesti hau Robert Zemeckis arrakastatsuak filmatu zuen, modako izarrak bilduz. Carl Sagan astronomoaren eleberrian oinarritua dago, Saganek berak zinemarako egokitua. Jodie Fosterrek Ellie astronomo protagonista antzezten du. Luze samarra da, baina hasieratik arretaz ikusten baduzue entretenituko zarete.

**HOT SHOTS**

★ **A3 - 22:00**

Zuz.: Jim Abrahams. Akt.: Charlie Sheen, Cary Elwes. 82 min. AEB. 1991.

Naked Gun sail amaigabearen arduradunen komedia ero eta ganberroa, Jim Abrahams eta lagunek sortua, tarte entretenigarria igarotzeko aproposa da. Oso parodia azeleratua da, zenbait unetan gehiegizkoa izanagatik nekagarria, baina oro har dibertitzeko modukoa deritzot; etengabeko disparateak eta zentzugabeko *gag* surrealistak nagusi dira. Atal honek Top Gun film komertzialari barre egiten dio nagusiki. Rol nagusia Charlie Sheenek antzezten du.

**LINDA, LOCA Y PELIGROSA**

★ **La 2 - 23:00**

Zuz.: Alan Spencer. Akt.: Arye Gross, Claudia Christian. 90 min. AEB. 1994.

Estatu Batuetatik datorkigun komedia eskasa da. Top Model erakargarri baten eta hotel bateko langile xume eta ameslariaren arteko gorabeherak erakusten ditu. Alan Spencerrek zuzendu eta gidoia idatzi zuen, zenbait urtez pantaila txikirako telefilm ugari errealizatu ondoren. Modeloaren rola Claudia Christianek antzezten du.

**TAXI**

★★ **TVE1 - 23:55**

Zuz.: Carlos Saura. Akt.: Ingrid Rubio, Carlos Fuentes. 106 min. Espainia. 1996.

Carlos Sauraren lan txikietakoa da, baina gustura ikusten da, nagusiki aktore talde interesgarriari esker. Ingrid Rubio eta Carlos Fuentes gazteek txukun betetzen dituzte zuzendari arrakastatsuaren aginduak, bigarren mailako aktoreek bezala; *800 balas* estreinatu berriko Angel de Andres azaltzen da, tartean. Espainiak Frantziarekin ekoiztua da, Sauraren beste lan batzuk bezala, alegia. Kaleko baztertuez mintzo da, bortizkeriaz eta gungo beste gizarte arazoez, taxi gidari baten eguneroko bizitza zaila erakusten duen bitartean. Rubioren antzezpena nabarmentzekoa da.

# irratia




**RADIO EUSKADI.** EAJko Iñaki Anasagasti izango da gaur, *Boulevard* saioan, Radio Euskadin. Espainiako Legebiltzarrean EAJko ordezkariak, Pedro Garcia Larraganek egiten dizkion galderei erantzungo die. Euskal Herriko eta Espainiako egunerokotasun politikoaren inguruan jardungo da. Horrez gain, saioan Edorta Roman ere izango da, meteorologian aditua dena. Romanek iragarpenak akatsak zergatik dituzten azalduko du. Almudena Cachok, berriz, Txelio Alcantarari egingo elkarrizketa, Ekologistak martxan taldeko kideari, zabor bilketaren inguruan.

**EUSKADI IRRATIA.** Musikaz blai etorriko da gaur Euskadi Irratiko *Lauretan babel* saioa. Mikel Telleriak disko berria du, *Zaldiak hartuta,* eta azken lan horrek biltzen duena azalduko du, hainbat abesti kantatzeaz gain. Nazioarteko gaiek ere izango dute tartea, Garbiñe Biurrun, Jesus mari Mujika eta Martin Auzmendiren mahai-inguruan. Izan ere, Errusian gertatutakoa eta Espainiara Jatami Irango buruzagiaren bisita mintzagai izango dituzte hizlariek. Eta Domu Santu bezperan Euskadi Irratiko bilduma historikoa eginen dute, hainbat urtetako *zapping*-a eginez.

## ETB-1

**06:55:** Tik tak circus.
**07:25:** Betizu.
Hartz txiki.
Doraemon, katu kosmikoa.
Hirukiak II.
**08:45:** Betizu taldea.
**09:20:** E-klipse@.
**09:40:** Hasiberriak.
**10:00:** Bidaide.
**11:00:** Bexamela.
**12:25:** Egiptoko misterioak.
**12:45:** Basabizitza ikusgai.
**13:35:** Betizu.
**14:00:** Gaur egun. Albistegia.
**14:40:** Postdata.
**14:45:** Euskai irratia. 20 urte.
**15:20:** Goenkale.
**15:50:** Bidaide.
Piztietan maltzurrena, sugea.
**16:40:** Sustraia.
**17:15:** Ikusgela.
**17:50:** E-klipse@.
**18:00:** Iparraldearen orena.
**18:05:** Tik tak circus.
**18:10:** Betizu.
Katutxakur.
Doraemon, katu kosmikoa.
Betizuzenean.
Shin Chan.
Betizu taldea.
**20:28:** Gaur Egun. Albistegia.
**20:40:** Futbola. UEFA Txapelketa. Alaves - Besiktas.
**22:45:** Sorginen laratza.
**00:00:** Postdata.
**00:05:** Firin faran.
**01:05:** Bakarrik edo...
**02:05:** Mike Hammer.
**02:55:** Travel notes.
**03:20:** E-klipse@.
**03:50:** Esanak esan.
**04:25:** Euskal Herritik.
**05:00:** 1 bitan.
**05:50:** Amama sukaldari.
**06:00:** Herri musika sorta.
**06:10:** Ikusgela.

## TVE1

**06:00:** Canal 24 horas.
Albistegia.
**07:30:** Telediario matinal.
Albistegia.
(09:30) Los desayunos de TVE. Gonbidatua: Jordi Sevilla.
**10:15:** Nano.
Telesaila.
**11:00:** Por la mañana.
*Saber vivir.*
*Asi son las cosas.*
*La cocina de Karlos Argiñano.*
**14:00:** Informativo territorial.
Albistegia.
**14:30:** Corazon de otoño.
Telesaila.
**15:00:** Telediario 1.
Albistegia.
**16:00:** Eguraldia.
**16:05:** Geminis.
Telesaila.
**16:40:** Secreto de amor.
Telesaila.
**17:55:** Cerca de ti.
**18:50:** El rival mas debil.
Lehiaketa.
**20:00:** Gente.
Pepa Bueno eta Sonia Ferrerrek aurkeztutako magazin saioa.
**21:00:** Telediario 2.
Albistegia.
**21:55:** Eguraldia.
**22:00:** Cuentame como paso.
Telesaila.
**23:55:** Zinema.
**Taxi**
Zuz.: Carlos Saura.
Akt.: Maite Blasco, Ingrid Rubio. 1996.
**02:05:** Telediario-3. Albistegia.
**02:30:** La banda de Perez.
Telesaila.
**03:30:** Canal 24 horas.

## ETB-2

**07:00:** Rutas de solidaridad.
**07:25:** Del pais de los vascos.
**07:55:** Clasicos en serie.
La casa de la pradera.
Los angeles de Charlie.
**09:30:** Forum.
Gonbidatua: Alberto de Castro.
**10:00:** El punto.
Gonbidatua: Ramon Rabanera.
**10:30:** Pacific blue.
**12:30:** Tequila y Bonetti.
Telesaila.
**13:30:** Euskadi directo.
Navarra directo.
**13:55:** Date el bote.
Lehiaketa.
**14:58:** Teleberri.
Albistegia.
**15:45:** Lo que faltaba.
Magazina.
**18:15:** Zinema.
**La ley de la fuerza**
Zuz.: Felix E. Feist.
Akt.: Kirk Douglas, Eve Miller. 1952.
**20:00:** Esta es mi gente.
Magazina.
**20:58:** Teleberri.
Albistegia.
**21:45:** Mas humor.
**23:25:** Investigacion TV.
*Psicopatas.*
**00:20:** Stargate.
**02:15:** Mike Hammer.
**03:05:** Esta es mi gente.
**03:55:** Lo que faltaba.
**06:00:** Forum.
**06:30:** Cronica sentimental.
**06:55:** El mundo de los hongos.

## A3

**06:00:** Canal noticias.
Albistegia.
**07:00:** Buenos dias, España.
El primer cafe.
**10:30:** A plena luz.
Pedro Piqueras eta Yolanda Alzolak aurkeztutako magazin saioa.
**13:30:** Ahora express.
**13:55:** Informativos territoriales.
Albistegia.
**14:25:** Los Simpson.
**15:00:** Antena 3 Noticias 1.
Albistegia.
**16:00:** Sabor a ti.
Magazina.
**19:00:** El diario de Patricia.
Patricia Gaztañagak aurkeztutako magazin saioa.
**20:00:** Pasapalabra.
Lehiaketa.
**21:00:** Antena 3 Noticias 2.
Albistegia.
**22:00:** Zinema.
**Hot shots**
Zuz.: Jim Abrahams.
Akt.: Charlie Sheen. 1991.
**23:45:** Especial noche de impacto.
**01:45:** Antena 3 noticias.
Albistegia.
**02:15:** The pretender.
**03:05:** Televenta.
**04:25:** Zinema.
**Renegados II: los locos**
Zuz.: Jean-Marc Valee.
Akt.: Mario Van Pebbles, Rene Auberjonois. 1997.